



7.ZIRKULARRA

2018-19 Denboraldia

JUBENILEN OHOREZKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Jubenilen Ohorezko Ligaren lehiaketa antolatu du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

I TALDEA: Oiartzun K.E.; Astigarragako Mundarro F.K.E.; Sporting de Herrera; Hernani C.D.; Touring K.E.; Beti Gazte K.J.K.E.; Kostkas K.E.; Dunboa Eguzki C.D.; Vasconia C.D.; Mariño C.D.; Real Unión Club; Trintxerpe C.D.; Ekintza K.E.; Allerru K.J.K.E.; Santo Tomas Lizeoa K.E. eta Hondarribia F.E.

II TALDEA: Aloña Mendi K.E.; Mondragon C.F.; Amaiak Bat F.T.; Bergara K.E.; Ilintxa S.D.; Elgoibar C.D.; Ostadar S.K.T.; Zumaiako F.T.; Billabona K.E.; Anaitasuna C.D.; Urki C.D.; Urola K.E.; Euskalduna S.D.; Ordizia K.E.; Beasain S.D. eta Aretxabaleta U.D.

2) LEHIAKETA SISTEMA

Bi taldetan banaturik, puntuen bidez eta bi itzulietara (30 jardunaldi).

Maila honetako txapelduna erabakitzeko talde bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatuko dute, zelai neutralean eta partida bakarrera.

- Garailea goiko mailan dagoen beste talde baten mendeko edo filiala bada, final honen Galtzaileak Jubenil Euskal Mailarako igoera aukera zuzena jokatuko du filiala den klubaren multzoko bigarren sailkatuaren edo hurrengo onenaren kontra.
- Garaileak mendekotasun edo filialtasun erlaziorik ez badu goiko mailako talderen batekin, Jubenil Euskal Mailara zuzenean igoko da, eta talde bakoitzeko bigarren edo hurrengo hoberen sailkatuek, beti ere kategoria autonomikora igotzeko aukera dutenak, Igoera Fasean sartzeko partida bat jokatuko dute – 3x1 joko-sistema-Arabako eta Bizkaiko bigarrenen kontra, play off –aren garailea ere igoko delarik.

Jubenil Lehen Mailara talde bakoitzeko azken 3 sailkatuak jaitsiko dira (3x2= 6)

3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

90 minutu, bost aldaketa eta gehienez zazpi ordezko eserlekuan.

4) ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek, posible izango dute, beraien partidua larunbata arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkakoaren baimenik gabe.

5) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenaz, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak

6) XEDAPEN OROKORRAK

A) “Koltxoi” mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

a) 1. Jubenilen Mailako talde bat igota.

b) Jubenilen Ohorezko Mailatik jaitsitako taldeen artean hobeto sailkatu denaren jaitsiera saihestuz, talde bakoitzean 14. postuan geratzen diren bi taldeen artean partida bikoitzera jokatu den kanporaketak erabakiko duena.

c) Eta horrela behin eta berriro.

B) Batzar orokorrean adostutakoaren arabera, Ohorezko Jubenil eta Kadete mailetan kategoria autonomikora igoera saria urria izanda eta menpeko taldeek duten eragin nabarmena kontuan izanda, “ez ohiko” irizpidea erabiliko da kategoria autonomikora igoera eta promozioa jokatu dutenak ebazteko. Zirkular honen 2. Puntuan “Lehiaketa sistema” azaltzen denaren arabera.

Donostia, 2018ko abuztua
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe